

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 205/2020 Erabakia, maiatzaren 12koa. Onestea jarduera ekonomiko-en gaineko zergari dagozkion 2019ko probintzia eta estatu kuotak banatzea Arabako Lurralde Historikoko udalen artean

Diputatuen Kontseiluaren urriaren 13ko 165/1993 Foru Dekretuaren bidez (ALHAO, 122. zk., 1993ko urriaren 25ekoa), jarduera ekonomiko-en gaineko zergaren zenbait kuota banatzeko ezinbesteko arauak onetsi ziren.

Bestalde, maiatzaren 14ko 13/2014 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiak zenbait tokiko zerga kudeatzeagatik kobratzen duen errenergua, edo kobrantza gastua, aldatzekoak hau xedatzen du: "Arabako Foru Aldundiak, lurraldeko beste herri administrazio batzuetarako zerga kontzeptu batzuen bilketaren kudeaketa esleituta badu, edo lan hori gain hartu, eta benetan gauzatzen badu, ehuneko 5 kenduko du bilketa-gastuak direla-eta". Manu horrek 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

Horiek horrela, banatu egin dira jarduera ekonomiko-en gaineko zergaren kuota probintzial eta estatalak, 2019an bildutakoak, Arabako Lurralde Historikoko udalerrien artean.

Aztertu da Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuak 2020ko apirilaren 23an egindako txostena.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu eta gero, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea jarduera ekonomiko-en gaineko zergaren kuota probintzial eta estatalak, 2019an bildutakoak, banatzea. Kuota horiek erabaki honen eranskinean zehazten dira eta guztira milioi bat bederatziehun eta berrogeita bi mila bostehun eta berrogeita sei euro eta hirurogeita hamasei zentimo (1.942.546,76 euro) egiten dute.

Bigarrena. Zergabilketak eragindako gastuak konpentsatzeko, zenbateko horri laurogeita hamazazpi mila ehun eta hogeita zazpi euro eta hogeita hamalau zentimo (97.127,34 euro) kenduko zaizkio, maiatzaren 5eko 12/1993 Foru Arauaren, hainbat kontzepturen ordainarazpenerako kupo erregimena arautzen duenaren, xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik. Xedapen gehigarri horretan xedatutakoa aplikatzeko kontuan izango dugu maiatzaren 14ko 13/2014 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiak zenbait tokiko zerga kudeatzeagatik kobratzen duen errenergua edo kobrantza gastua aldatzekoak, horri buruz emandako idazketa.

Hirugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak igorri diezaiela lurralde historiko honetako udalei gainerako zenbatekoa, milioi bat zortzietan eta berrogeita bost mila laurohun eta hemeretzi euro eta berrogeita bi zentimokoa (1.845.419,42 euro), erantsitako banaketari jarraituz, jarduera ekonomiko-en gaineko zergaren probintziako eta estatuko 2019ko kuota gisa eta 99/15 – 20.177 lerroaren kargura.

Laugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, zenbait toki administrazioetan eragina duelako, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 103. artikuluekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 12a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

M. JOSÉ PEREA URTEAGA

PROBINTZIAKO ETA ESTATUKO 2019KO KUOTEN BANAKETA (EUROTAN)

UDALERRIA	BANAKETA GORDINA	KOBRANTZA SARIA	BANAKETA GARBIA
ALEGRIA-DULANTZI	14.608.010	730.400	13.877.610
AMURRIO	54.828.370	2.741.420	52.086.950
AÑANA	1.121.000	56.050	1.064.950
ARAMAIO	6.191.750	309.590	5.882.160
ARMIÑON	1.495.330	74.770	1.420.560
ARRAIA-MAEZTU	3.680.220	184.010	3.496.210
ARRAZUA-UBARRUNDIA	4.163.330	208.170	3.955.160
ARTZINIEGA	8.747.560	437.380	8.310.180
ASPARRENA	25.816.670	1.290.830	24.525.840
AYALA	14.140.890	707.040	13.433.850
BAÑOS DE EBRO	2.335.980	116.800	2.219.180
BARRUNDIA	7.733.360	386.670	7.346.690
BERANTEVILLA	6.937.820	346.890	6.590.930
BERNEDO	2.943.170	147.160	2.796.010
CAMPEZO	5.153.240	257.660	4.895.580
ELBURGO	2.539.340	126.970	2.412.370
ELCIEGO	8.325.810	416.290	7.909.520
ELVILLAR	2.693.890	134.690	2.559.200
IRUÑA DE OCA	22.560.550	1.128.030	21.432.520
IRURAZ-GAUNA	1.740.560	87.030	1.653.530
KRIPAN	704.880	35.240	669.640
KUARTANGO	3.929.920	196.500	3.733.420
LABASTIDA	13.451.470	672.570	12.778.900
LAGRAN	672.050	33.600	638.450
LAGUARDIA	26.192.410	1.309.620	24.882.790
LANCIEGO	5.853.050	292.650	5.560.400
LANTARON	28.555.530	1.427.780	27.127.750
LAPUEBLA DE LABARCA	8.089.070	404.450	7.684.620
LEGUTIO	31.516.870	1.575.840	29.941.030
LEZA	1.432.500	71.630	1.360.870
LAUDIO/LLODIO	110.647.220	5.532.360	105.114.860
MOREDA DE ALAVA	1.193.120	59.660	1.133.460
NAVARIDAS	1.316.820	65.840	1.250.980
OKONDO	6.928.440	346.420	6.582.020
OYON-OION	34.575.100	1.728.730	32.846.370
PEÑACERRADA-URIZAHARRA	1.021.820	51.090	970.730
RIBERA ALTA	4.664.320	233.220	4.431.100
RIBERA BAJA	12.057.860	602.890	11.454.970
SALVATIERRA	42.369.940	2.118.500	40.251.440
SAMANIEGO	2.638.350	131.920	2.506.430
SAN MILLAN	19.996.280	999.810	18.996.470
URKABUSTAIZ	8.879.180	443.960	8.435.220
VALDEGOVIA	4.929.510	246.480	4.683.030
VALLE DE ARANA	1.017.510	50.880	966.630
VILLABUENA DE ALAVA	3.271.780	163.590	3.108.190
VITORIA-GASTEIZ	1.327.282.690	66.364.130	1.260.918.560
YECORA	1.000.870	50.040	950.830
ZALDUONDO	835.270	41.760	793.510
ZAMBRANA	1.769.130	88.460	1.680.670
ZIGOTIA	28.411.840	1.420.590	26.991.250
ZUIA	11.274.240	563.710	10.710.530
GUZTIRA	1.942.546.760	97.127.340	1.845.419.420